


# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko urriaren 30ean aurkeztuko du

## **Making Africa — Gaur egungo diseinuaren kontinentea**

**Vitra  
Design  
Museum**

GUGGENHEIM BILBAO

## *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea*

- Egunak: 2015eko urriaren 30a – 2016ko otsailaren 21a
  - Komisarioak: Amelie Klein, Vitra Design Museum; Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoa
- 
- Erakusketak Afrikari buruzko beste ikuspegi bat eskaintzen du gaur egungo 120 artista eta diseinatzaileen obren bitartez. Aldaketa politikoa, ekonomikoa, kulturala eta teknologikoa kontinentean diseinuaren bitartez nola lagundu eta bultzatzen den erakusten digute artista hauek.
  - *Making Africa* bildumako obrek askotan lantaldean eta hiri-ingurune batean sortutakoak dira, iraultza digitala eta eguneroko analogikoa lotzen dituzte, materialen erabilera berriak asmatzen dituzte, merkatuari baino gehiago gizarteari begira daude, eta etorkizunari buruzko baieztapen ausartak egiten dituzte.
  - Erakusketa “aro digitalean jaiotako” *entrepreneurs*, pentsalari eta diseinatzaile afrikarren belaunaldi berri baten inguruan osatu da. Munduari euren kontinenteari buruzko ikuspegi berria ekartzen diote, eta askotan diziplinen artean lan egin eta diseinu, arte, argazkigintza, zinema eta arkitekturaren ohiko definizioak zalantzan jartzen dituzte.
  - Lau ataletan banatuta dago erakusketa, eta Mendebaldeak Afrikaren inguruan dituen aurreiritziei aurre egiten zaie. Diseinua arakatzen du, garapen soziala eta kulturala zuzenean erakusteko tresna eraginkor gisa. Gizabanakoa aztertzen du, baita hiria haren ingurune hurbilena bezala ere. Era berean, gaur egungo Afrikako kultura eta bere erroak miatzen ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* aurkezten du. Guggenheim Bilbao Museoaren eta Vitra Design Museum-en erakusketa honek German Federal Culture Foundation eta Art Mentor Foundation Lucerne fundazioen laguntza dauka.

Erakusketan hainbat sormen-esparrutako obrak ikus daitezke: altzari eta objektuen diseinua, arte grafikoak, ilustrazioa, moda, arkitektura, hirigintza, eskulangintza, zinema eta argazkigintza, baita baliabide digitalak eta analogikoak ere. Lan horien bitartez eraldaketa politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala eta teknologikoa erakusten dira.

Afrikan bereziki nabarmentzen den eboluzio horren buru da pentsalari eta egileen belaunaldi gazte bat. Hauek kontinenterako eta mundu osorako diziplina anitzeko irtenbideak eta irtenbide berritzaileak proposatzeaz gain, diseinua ulertzeko ohiko modua asaldatzen dute.

Erakusketako obrek erantzun zehatzak ematen dizkiote XXI. mendean diseinuak lor dezakeenari eta lortu behar duenari. Askotan kopuru txikitan eta lantaldean sortuak dira, modu deszentralizatuan produzituak eta, nagusiki, hiri-ingurunean eginak, emaitzak baino gehiago piezak egiteko prozesuak du garrantzia. Batzuetan badagoen zerbait berriro asmatzen duen sortzaile informala kulturatik sortzen dira, edo lan berriak produzitzen dituzte usadiozko tresnak eta tresna elektronikoak erabiliz. Artelan hauek iraultza digitala eta gure eguneroko analogikoa lotzen dituzte, materialen erabilera berriak asmatzen dituzte, merkatuari begira baino gehiago gizarteari begira daude, eta etorkizunari begira aurreikuspen ausartak egiten dituzte.

Gaur egungo sormen-lan hauek XX. mendearen erdialdeko lanekin lotuak daude. Izan ere, une hartan gazteen belaunaldi batek kolonialismoaren amaiera ospatzen zuen eta munduan berezko lekua eta aukeradun etorkizun bat izateko eskubidea aldarrikatzen zuen. Erakusketaren bitartez ez da Afrikako diseinuaren irudi osatua erakutsi nahi. Izan ere, 54 herrialde, 2.000 hizkuntza eta kultura baino gehiago, eta 1.000 milioi biztanleko kontinente hau zabalegia, konplexuegia eta anitzegia da. Erakusketak, ordea, kontakizun berri bat eskaintzen du, Afrikara begiratzean sor daitezkeen askotariko bat. Halaber, kontinente hau erabat berria den ikuspegi batetik begiratzeko gonbidapena da.

*Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* erakusketak gaur egungo Afrikako diseinuaren gainean ikuspegi berria eskaintzeko erronka du, 120 artista eta diseinatzaile baino gehiagoren artelanen bitartez. Aldaketa politikoa eta ekonomikoa kontinentean diseinuaren bitartez nola lagundu eta bultzatzen den erakusten digute artista hauek. Horrela, erakusketa honetan Afrika esperimentazio-gune bezala —mundu-mailako garrantzia duten ikuspegi eta soluzio berriak sortzen ditu—, eta XXI. mendean diseinuaren potentzialaren inguruan eztabaida berriak bultzatzen dituen indar bezala erakusten da. Publiko globalari zuzenduta dauden eta munduaren ikuspegi berria ematen duten “aro digitalean jaiotako” Afrikako *entrepreneur*, pentsalari eta diseinatzaileen belaunaldi berri baten inguruan osatu da. Askotan lanean diziplinak nahasten dituzte, eta diseinu, arte, argazkigintza, arkitektura eta zinemaren ohiko definizioa apurtzen dute.

Hedabideek Afrikaren goraldiari buruz hitz egiten dutenean, hazkuntza ekonomiko azkarrari edo erdi mailako klasearen gorakadari begiratzeko joera dute. Fenomeno horiek datozen hamarkadetan gertatuko diren funtsezko aldaketen oinarrian egoten jarraituko dute. Hala ere, bada afrikarren eguneroko bizitza jada aldatu duen eta artisten eta diseinatzaileen obran eragin handia duen beste aldaketa bat: Afrikan, gaur egun, 650 milioi telefono mugikor daude, European eta Estatu Batuetan baino gehiago. Gailu hauetako askok Interneteko konexioa dutenez, munduarekin komunikatzeko eta informazioa trukatzeko plataforma dira. Horrek, *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* lanaren azpian dauden ikuspegiak aldatzea ahalbidetu du.

### **Erakusketaren barrena ibilbidea**

Erakusketa lau ataletan banatua dago. Lehendabizikoan, *Prologue* (hitzaurrea), Mendebaldean Afrikaren inguruan dauden aurreiritziak lantzen ditu, eta hainbat galdera egiten ditu, hala nola, nork eta nola hitz egiten du kontinentearen inguruan? Bigarren atalean, *I and We* (ni eta gu), geure burua

nola azaltzen dugun eta beste gizabanakoekin, taldeekin edo gizartearekin nola komunikatzen garen aztertzen da. Hirugarren atalean, *Space and Object* (espazioa eta objektua), inguruneak gizabanakoan eta bere sormeneko lanetan nolako eragin handia duen aztertzen da. Azkenik, laugarren atalean, *Origin and Future* (jatorria eta etorkizuna), denboraren kontzeptua miatzen du: kolonien aurreko garaia eta kolonizazio aldia, iragan hurbila eta etorkizuna.

### **Prologue 208, 205**

Erakusketa modu berezian garatu eta taxutu da. Bi urte iraun zituen ikerketa batean, Lagos, Dakar, Lurmutur Hiria, Kairo, Nairobi eta Afrikako beste hiri garrantzitsu batzuetan bilera ugari burutu zituzten. Biler horietan, 70 diseinatzailek, artistek, ikerlarik, arkitektoek, galeria-jabeek eta arte-arduradunek hainbat gai eztabaidatu zituzten, besteak beste: diseinua zertan datzan, Afrika zer den eta afrikar diseinurik badagoen. Haien erantzunek ikus-entzunezko dokumentu interesgarriak sorrarazi zituzten —elkarrizketetako 22 atal honetan ikus daitezke—. Lan horiei esker erakusketa beste ikuspegi batetik egin ahal izan da, aldez aurretik pentsatutako klise eta ideiekin lotu gabe.

Erakusketa honen azpian dagoen tesia da Afrika gosetea, ustelkeria eta paisaia ederrak baino gehiago dela. Diseinu afrikarrak birziklatzea, eskulangintza tradizionala edo diseinu humanitarioa baino haratago doan erronka-espektro bat hartzen du bere baitan.

Hortaz, estereotipoak eta irudikapenaren gaiak arakutzen dituzten lanen bitartez, ikerlari eta misiolari europarren kontakizunek mendeetan definitutako Afrikaren ikuspegia indarrrik gabe uzten du Prologue atalak. Horretarako, Afrika osoan eta diasporan diseinuaren inguruan teorizatzen eta diseinua praktikatzen duten pertsonak hartzen dira kontuan, benetan diseinu afrikarra ba ote dagoen gaiaren inguruan eztabaidatuz, birziklatzea edo informalismoa bezalako kontzeptuak berriro definituz, kontinentea bertako sormen-sektorean islatzen ote den eztabaidatuz, edo diseinuak zein eragin izan dezakeen Afrikaren etorkizunean bezalako gaiak jorratuz.

Beharrezko ikuspegi-aldaketaren metafora egokia dira Cyrus Kabiru artista kenyarraren betaurreko-eskulturrak, edo Bilbon erakutsi ez den Laurence Aëgerter eta Ronald van Tienhoven artisten *Tropiko tristeak: bazterreko ilustrazioak* (*Tristes tropiques: illustrations hors texte*) lana. Bertan, garai eta latitude diferentetatik hartutako pertsonen irudiak lotzen ditu.

### **I and We 206, 207**

Egunerokotasunean, diseinua tresna eraginkorra da geure buruaren inguruan solas egiteko, talde baten parte garelako erakusteko eta gure bereizgarriak aditzera emateko. Naturaltasunez kultura global baten kide sentitzen den afrikarren belaunaldi berri batek berak sortutako lanak erakusteko agertoki gisa erabiltzen ditu sare sozialak, blogak eta YouTube. Festa eta dibertsioa, beraz, politikaren eremura eramaten dituzte, duela 50 hamar urte gertatu zen bezala: kontinenteko herrialde gehienek independentzia lortu zuten eta hainbat argazkilarik, tartean, Malick Sidibe-k eta Seydou Keita-k, aro berriko poza eta alaitasuna jaso zituzten.

Afrikako gizartean eta kulturaren gertatzen diren aldaketak, baina, ez dira munduko joeren kopia hutsa. Horren adibide ditugu loratzen ari diren zenbait azpikultura, adibidez, Botswanako heavy metal giroa eta Kongoko Errepublikako *sapeur* gizonak. Bi taldeak mendebaldeko estiloaz baliatzen dira —larrua eta tatxetak eta jantzi dotoreak eta Panama kapelak—, baina kode estetikoak beste modu batean ulertzen dituzte, eta, ondorioz, Afrikakoa baino ez den kultura sortzen dute. Moda sexuen arteko mugak aztertzeko tresna da —sedukzioa eta generoen rola tartean— eta gutxiengo sexualak adierazpide moduan erabiltzen dute.

Areto honetako obraren adibide da *Guztia jatearen ondorioa* (*The End of eating Everything*). Bertan, Santigold kantari estatubatuarrek interpretatutako emakume bat, medusa bat balitz bezala, apokalipsi ondoko paisaia baten gainean flotatzen ari da, eta txori-saldo batekin topo egitean haiek jaten hasten da. Bere gorputza nazkagarria da, pilpiragarria, eta zauriz beteta dago; giza zatiz eta makinaren piezaz zipriztindua dago, eta poroetatik ke pozoitsua izerditzen du. Azkenean inplosionatu egiten du, emakumeen buru ugari jaiotzen. Munstro hau Lur planetaren eta gizarte modernoaren etengabeko kontsumoaren sinboloa da.

Hemen ikusgai dauden lan guztiek berezko dute alderdi politikoa eta horren osagai izaten da, maiz, alderdi soziala. Kunle Adeyemi-ren eraikinak, Chicoco Radiorako, herritarren erresistentzia arkitekturara eramatearen adibide dira. Lucinda Mudge zeramikagileak Txinako portzelanaren estetika duten murkoetan Hegoafrikako, jaioterriko, hainbat gai lantzen ditu, besteak beste, delinkuentziari beldurra eta gizartearen berdintasunik eza.

Atal honetan, Bilboko erakusketaren berrikuntza gisa, *Clam* erreferentziako aldizkaria ikus daiteke. Aldizkariaren fundatzaileen hitzetan “benetan nolakoak garen besterik gabe adierazteko” sortu zen; jende guztiari zuzendutako Afrikako moda, arkitektura, musika, berrikuntza eta diseinuari buruzko aldizkari afrikar espezializatua da hau.

### Space and Object 209

XXI. mendearen erdialdean, munduko herritarren % 65 eta 70 artean hirietan biziko da, eta egoera horrek ekarriko dituen errokei aurre egin beharko die diseinuak. Gaur egun nabaria da hiriak eta haren informaltasun handiak Afrikako sormen-lanetan duten eragina. Hiria dute ardatz, besteak beste, Tahir Carl Karmali, Bodys Isek Kingelez, Vigilism, Michael MacGarry, Mikhael Subotzky, Meschac Gaba, James Muriuki edo Peterson Kamwathi bezalako egileen lanek. Proposamen batzuk guztiz alegiazkoak badira ere, Justin Plunkett-en metal korrugatuzko dorrea kasu, gaur egun biztanle askoko hiri-guneetako gizartearen, ekonomiaren, politikaren eta kulturaren errealitatearen ikuspegi jakin bat modu probokatzailean azaltzen dute. *Space and Object* atal hau pertsonen eta hauen bizilekuei eskaini zaie. Hiria jorratzeaz gain, giza banakoaren ingurua osatzen duten teknologiak, materialak eta sistemak azaltzen dira. Aurrez aurre jarri dira gizakiak egindako guneak eta gune naturalak: altzairua eta buztina, birziklapena eta usadiozko artisautza.

M-Pesa sistemak, adibidez, kontinentean dagoen azpiegitura-ezaren hutsune bat bete du: diru-sarrerara txikia dutenei toki batetik bestera dirua transferitzeko egitura eskaini die, banku-sistema ofiziala ez baitute eskuragarri. Sakelako telefono bidezko diru-transferentziak egiteko zerbitzu hori

oso erabilerraza da —Safaricom sakelako telefono-enpresak abian jarri zuen 2007an—. M-Pesako tokiko agenteek kudeatzen dute —gainera, gasolina, janaria eta egunkariak sal ditzakete haien dendetan—. Diru-kopurua leku jakin batean utzi ondoren, hartzaileari ordaintzen zaio beste edonon SMS bidez bidalitako kode bat aurkeztuz gero. Kenyako barne produktu gordinaren % 25 inguru sistema honen bidez mugitzen da.

### **Origin and Future 202**

Alderdi askotan, Afrikan kultura zerbait globala da. Beyonce eta Katy Perry pop izarren YouTube bideoek beste inon bezain beste klik izaten dituzte han. Aldi berean, kontinentearen historian sakon errotuta dago Afrikako kultura, eta sortzaile askok sustrai horiek aintzat hartzen dituzte, munduko globalizazioari erantzuteko bereziki. Frantziar-kongotar Taali M abeslariaren webgunea, adibidez, antzinako Afrikako erreinu baterako gonbidapentzat har liteke, webgunearen arte-zuzendari Pierre-Christophe Gam-en arabera. Mende luzetako kolonizazioak eragin handia du Afrikako kulturean. Horren adibide bikaina da, erruz, Afrikako (Afrika mendebaldeko) ikur bihurtutako oihal mota bat: oihal afrikarra, *ankara* izenez ere ezaguna dena. XIX. mendearen erdialdera Herbehereetako eta Ingalaterrako konpainia batzuek Indonesiako *batik* ehunen ekoizpena industrializatu zuten. Beste hainbaten artean Vlisco konpainia merkatu-buru bihurtu zen. Ez dago argi oihal horiek nola iritsi ziren Afrikara, baina inprimatu koloretsu horiek entzute handia izan zuten bertan, eta ez ziren inoiz xede zen Herbeheretako merkatura heldu. Gaur egungo diseinatzaile eta artista askok inprimatu hauek erabiltzen dituzte euren lanetan. Aldi berean, ahots kritiko askok zalantzan jartzen dute kolonizatzaileen produktu hori onartzearen eta erabiltzearen egokitasuna. Azkenaldiko historian Nelson Mandelaren irudiarekin kontinente osoa identifikatu da, eta artista eta diseinatzaileek ere zerbait partekatzen dute: etorkizunera begiratzeko modua. Ikuspegi zertxobait distopikoak dira funtsean, baina, azkenean, beti, itxaropena dago. Ideia hau estatu-batuar/nigeriar Ikire Jones moda-etxearen zapi batean ikus daiteke 2081eko Parisko irudi batekin. Bertan, Afrika berri bateko bisitariak Eiffel dorrea baino mirespen handiagoa sorrazten dute. “Etorkinak zirenez, barregarri utzi eta gutxietsi zituzten” dio zapi-etxearen webguneko testu batek. “Aspaldi gertatu zen hori. Gaur egun ikusnahi artean ibiltzen dira, kameran aurrean, eta turistek elkarri galdetzen diete nor diren”. Ikuspegi ausarta da, inoiz egia izan daitekeen arren.

### **Cinema 203**

Areto honetan Afrikako zinema abangoardistena ikus daiteke, hala nola, Ghanan jaio eta New Yorken bizi den Frances Bodomo zinemagilearen *Afronauts* (2014), edo Kenyan jaio eta Nairobín bizi den Wanuri Kahiu-ren *Pumzi*, (2009) lanak.

### **Erakusketaren diseinua eta erreferentzia historikoak**

Afrikaren eta Afrikako diseinuaren ikuspegi berria eskaintzeko, *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* erakusketan beirazko hainbat panel jarri dira. Koloretakoak dira (koloreztatuta daude) eta horietatik begiratzean ohar gaitzeko ikuspegiak anitzak izan daitezkeela. Koloretako beira baten bidez ikusten duguna aldatu egiten da gerturatu eta urrunduz gero. r

Panel horiek iragazki kognitiboen (aurreiritzien) metafora dira. Iragazki horiek Mendebaldeko eta Iparraldeko herrialdeetakoek ditugu, eta horien bitartez begiratzen diogu Afrikari. Panelek kontinentea “beste modu batzuetan interpretatzeko” edo “ikuspegi askorekin” begiratzeko ideia aldarrikatzen dute.

Erakusketa kontinenteko sortzaile-belaunaldi berri batean oinarritu bada ere, askotan artista hauek independentzia lortu zuten aitona-amonen belaunaldia aipatzen dute. Horregatik, erakusketaren diseinuak bi historia horiek islatzen ditu, eta material historikoak (argazkiak, *Drum* aldizkariaren inprimaketa berriak) zuzenean erakusketako euskarrietan inprimatu dira. Horrela, historia gaur egungo obren atze-oihal bihurtzen da, literalki.

### **Katalogoa**

Erakusketarekin batera katalogo bat, irudiduna, argitaratu da. 300 orrialde baino gehiagotan, egile hauen obrak zein beste lan batzuk aurkituko ditugu: Amelie Klein, Koyo Kouoh, Avisash Rajagopal eta Vera Sacchetti, Azu Nwagbogu eta Odessa Legemah-ren entseguak; Okwui Enwezor, Mugendi M'Rithaa eta Edgar Pieterse-kin elkarrizketak; eta erakusketaren zein honekin baterako bolumenaren garapen-prozesuaren zati gisa Lagos, Dakar, Lurmutur Hiria, Kairo eta Nairobin egindako ideien laborategietako laburpenak.

### **Didaktika *Mugarik gabe!***

*Making Africa - Gaur egungo diseinuaren kontinentea* erakusketari loturik, Didaktika proiektuak *Mugarik gabe!* aurkezten du, bi multzotan egituraturako hezkuntzako jarduera-programa zabala. Alde batetik, tailer praktikoak izango dira, eta erakusketako artista batzuek emandakoak; Yinka Ilori-k, adibidez, altzari eta diseinu tailerra zuzenduko du, eta gaur egungo Afrikako moda-diseinua aztertzeko aukera izango dugu oihalen diseinuaren eta modaren inguruko tailerlean.

Bestetik, jarduera teorikoagoak egingo dira diseinua ardatz nagusi hartuta —hitzaldiak eta mahai-inguruak, besteak beste—, erakusketako zeharkako beste gai batzuk jorratzeko. Erakustea ireki baino lehen, komisarioek, Amelie Klein-ek eta Petra Joos-ek, Afrikako diseinuaren inguruan eta erakusketaren taxutzearen inguruan hitz egingo dute.

Horrez gain, MEM jaialdia dela eta, *Estrecho Exchange* performance berezia eskainiko dute Omar Saadoun eta Ana Matey artistek. Elkarrizketan hasi ziren, komunikazio digital horren ondoren elkar ezagutu zuten eta elkarrekin proiektu bat abian jarri zuten testuinguru jakin batean, Marokon, alegia.

Azkenik, *Partekatutako hausnarketak* bisitaldien bidez, Museoko profesionalek gidatutakoak, publikoak erakusketaren eta muntaiaren zokoak ezagutzeko aukera izango du, arte-arduradunen ikuspegia eta erakusketaren funtsezko kontzeptuak aztertuz.

### **Aretoetako orientatzaileak**

Bisitariak aretoetako orientatzaileei galdetu ahal izango diete ikusgai dauden obren inguruan informazio zabalagoa jasotzeko. Museoak, 11:00etatik 14:00etara, dohainik eskaintzen du zerbitzu hau.

### **Informazio gehiagorako:**

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketin Saila  
Tel: 944 359 008  
media@guggenheim-bilbao.es  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

**Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)(prentsa-eremua).**



Prensa irudiak:  
*Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea*  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

**Cyrus Kabiru**


*Karibeko eguzkia (Caribbean Sun)*

*Betaurreko txundigarriak (C-Stunners)* sailetik, 2012

Koloretako inprimaketa

150 x 100 cm

© Carl de Souza/AFP/Getty Images



**J.D. 'Okhai Ojeikere**

*Onile Gogoro edo Akaba (Onile Gogoro Or Akaba)*

*Orrazkerak (Hairstyles)* sailetik, 1975

Inprimaketa digitala

50 x 50 cm

CAAC-ren eskaintza. Parisko Magnin-A Gallery-ren eskaintza

© Ojeikere Estate



**Mário Macilau**

*Alito, estilodun gizona (Alito, The Guy with Style)*

*Trantsizio-uneak (Moments of Transition)* sailetik, 2013

Inprimaketa digitala

80 x 120 cm

Londresko Ed Cross Fine Art Ltd-en eskaintza

© Mário Macilau



**Omar Victor Diop**

*Mame*, 2014

*Banitateen estudioa sailetik (The Studio of Vanities)*

Pigmentudun tinta-zurrusta bidezko inprimaketa Hahnemühle-ren Harman paper gainean

93 x 93 cm

Parisko Magnin-A Gallery-ren eskaintza

© Omar Victor Diop, 2014



### Malick Sidibé

*Gabon gaua (Happy Club) [Nuit de Noël (Happy Club)], 1963*  
Zilar-gelatinazko inprimaketa  
40 x 40 cm  
CAAC-ren eskaintza. Parisko Magnin-A Gallery-ren eskaintza  
© Malick Sidibé



### Cheick Diallo

*Sansa, 2010*  
Metala, nylona eta soka  
80 x 70 x 90 cm  
Londresko Pascale Revert-en eskaintza  
© Cheick Diallo



### Bodys Isek Kingelez

*Kongoko izar gorria (Étoile Rouge Congolaise), 1990*  
Papera, kartoia, poliestirenoa, plastikoa eta aurkitutako beste material batzuk  
85 x 92 x 50 cm  
Genevako CAAC-The Pigozzi Collection-en eskaintza  
© Bodys Isek Kingelez




### Ikiré Jones

*Idumota Market, Lagos 2081 A.D.*  
*Our Africa 2081 A.D.* sailetik, 2014  
Inprimaketa digitala  
35 x 45 cm  
© Olalekan Jeyfous [vigilism.com] & Walé Oyéjidé [ikirejones.com]



### Pierre-Christophe Gam

*Taali M-en erreinua (The Kingdom of Taali M), 2013*  
Webgunea, Taali M kongotar-frantziar abeslariarena  
© Pierre-Christophe Gam



### Wangechi Mutu

*Guztia jatearen ondorioa (The End of eating Everything)*  
[fotograma], 2013  
Koloretako animazio-bideoa, soinuduna  
8 min 10 s  
6 aleko edizioa + 2 AP  
Hauen eskaintza: artista, Gladstone Gallery eta Victoria Miro Gallery. Honen aginduz egindakoa: Nasher Museum of Art, Duke University, Durham, NC



*Sunsum*, 2015

Park Station, Johannesburg

Beltzez tindatutako hormigoizko oinarria eta eserlekua

Beltzez tindatutako Saligna Glulam zura, altzairuzko lotuneduna

Arkitektoa: David Adjaye, Adjaye Associates

Bezeroa: Zahira Asmal, THE CITY

Johannesburgoko Udala

Garapen Bulegoa



Maketa (materialak):

2100 mm x 2100 mm x 2000 mm

12mm-ko DM ohola, 3 mm-ko altzairuzko hagatxo eta tindagai beltz matea

Oinarria 32mm-ko DM ohola da, Storm Grey PVA pinturaz margotua